



**PRENTSA OHARRA:
ERREZILEN OSPATUKO DA AURTENGO ESKOLA TXIKIEN JAIA**

2022ko ekainaren 12an ospatuko da eskola txikien jaia, aurtengoan, Errezilen. 2021eko ekainean Aizarnako eskolak emandako lekukoari jarraiki, 34. Eskola txikien jaia antolatzen ari dira Errezilgo herritarrak; herrian, bigarren aldiz antolatuko da jai hau, 1995ean gauzatu baitzen lehen aldiz. 'Eskola Txikiak Bizirik' leloarekin jarraitzen da urterik urte jaia antolatzen.

Gurasoen ordezkaritza, ikasleena eta irakasleena izan dira gaur herriko eskolako patioan izan den prentsaurrekoan, ekainera begira herritarrak egiten ari diren bidearen berri emanez.

Eskola Txikietako herrien arteko elkargunerako festa eguna izan ohi da hau. Eskola Txikien komunitatea elkartuz, eskola berezitu diren herri nahiz auzoen biziraupena ospatzeko jaia egiten da. Ikasle, irakasle, guraso eta herritarren arteko loturak eta harreman positiboak indartzea izan ohi da helburua.

Izan ere, ukaezina da Eskola txikiek herri nahiz auzo txikietan duten garrantzia eta eragin positiboa. "Errezilen dugun eskola txikiari esker gure hurrek euren herrian hazi eta hezteko aukera eskaintzen diegu. Adin ezberdinetako ikasleen arteko harremanetan murgiltzen dira, euren jaioterrian kokatuta abiatzen dira ikaskuntza prozesua garatzen, eta lehen mailako harremanetan sakontzeko aukera ematen diegu herriarekiko harremanetan" azpimarratu du Oihana Trula Aginagalde gurasoak.

Jaiaren ospakizunak, jakina, antolakuntza lana eskatzen du, eta Errezilen ere aspaldi dabilta lanari ekinak. Iazko ekainean egin zen herritar guztientzako antolakuntza deia. Bilera hartatik hona, lanean ari dira talde ezberdinetan banatuta. Koordinaziorako arduradunetz gain, beste 6 talde sortu dira: salmenta lanak, zerbitzuen antolaketa, ikuskizunak, komunikazioa, kudeaketa ekonomikoa eta trafikoa; gaika eta beharren arabera antolatuta daude.

Lana eta ekarpen ekonomikoa ere beharrezko izaten dira horrelako ekintzetan, eta horretan, gogora ekarri dira enpresa edota erakunde publiko nahiz pribatuen diru-laguntza edo ekarpenak.

2022rako logoa ere aurkeztu da pentsaurrekoan. San Martin Herri eskolako irakasleek dinamizaturik, irailean bertan eskola txikien logoen erakusketa bat antolatu zen. Ordu artean egingako logo guztien erakusketa hartatik sortu da aurtengo irudi berria.

Eskola txikietan ezagun den moduan, San Martin Herri eskolak ere eskola txikien ezaugarriak ditu. 54 ikasle daude, une honetan: 19 Haur Hezkuntzan eta 35 Lehen Hezkuntzan. "Eskola publikoa da. Zerbitzu publikoa ematen du, aukera berdintasuna eta inklusibotasuna bultzatzen ditu; hurbiltasuna, aniztasuna eta kohesio soziala erdigunean jarri nahi dituen da San Martin eskola" aipatu du Miryam Urrutibeaskoa Onaindia ikastetxeko zuzendariak.

Herri eskola, eraikinetatik kanpora dauden beste sistemekin etengabeko harremanean dago: familiak, udaletxea, elkarteak, herritarrak... Eskolaren ingurune hurbila da hezkuntza baliabide esanguratsuena, baita herritarren ingurune naturala ere. Nekazal eremuan kokatuta dago eskola; "gure haur nahiz familia edo herritarrak ere kaleko nahiz baserrietakoak dira, eta inguruneak duen aberastasuna baliatuz osatzen ahalegintzen gara hezkuntza curriculumara. Euskaraz bizi eta euskaraz hazi nahi dugun komunitatea gara. Errezilgo hizkuntzan bizi eta irakasteko hautua eginda daukagu" gaineratu du Leire Lazkano Odriozola irakasle eta gurasoak.

Hala, *herri eskola* kontzeptua egin eta berreginez dihardute egunez egun, iraganaren erroak gogoan izanik. "Guztion eskola" da diote. Eskolan parte hartzen dugun guztion arteko harremana bilatzen duena.

Gertutik zabaltzeko ariketa egiten ari dira jai honen antolaketan. Bi hilabete inguru besterik falta ez den honetan, badira jaiaren antolaketan azken lanak aurreratzeko. Guraso, ikasle eta irakasleen artean buru-belarri dabilta elkarrekin. Gero eta gutxiago falta da egun handirako, eta honetan direla, eurekiko gertutasun handiena duten eskola txikietako guraso, ikasle eta irakasleak animatu dituzte Errezilera etor daitezen eskola txikien jaiaren parte hartuz ondo pasatzera.

"Baditugu denontzako erakargarriak diren ekimenak, beraz, animatu etortzera" esan digute Ainhoa Aiertza Urrestarazu eta Alaia Agirretxe Ibarbia ikasleek.

Eskola Txikien sareak antolatuta, gauzatu berri dira Errezilen (martxoaren 26an) eskola-jantokiei buruzko jardunaldiak. Jantoki ereduez eta elikadura sistemaz aritu dira solasean. Ekainaren hasieran, berriz, Gipuzkoako eskola txikietako koordinakundearekin batera aurkeztuko da jaiaren egitarau osoa.

2022ko jaiaren ondoren, Lizartzak helduko dio eskola txikietako jaiaren ardurari.